

Atxikimendu eskaera
30 URTE AHTA OZTOPATZEN!
BATU LURRAREN ALDE!



Aurten AHTaren aurkako borrokak 30 urte betetzen ditu Euskal Herrian, Iparraldean tokian tokiko taldeen koordinazioaren eskutik sorturik -gerora CADE- eta Hegoaldean, AHTaren Aurkako Asanbladaren partetik. 30 urtez lurraren defentsan, eraldaketa sozialaren alde eta garapenzalekeria itsuaren aurka.

Bizi gaituen krisi ekosozial honetan inoiz baina garbiago ikusten ari gara AHTaren mitoa erortzen ari dela eta **30 urte hauetan oposizioak emandako aurreikuspenak betetzen ari direla**. Zalantza izpirik gabe, gaur egun **AHTa txikizioa, xahuketa eta elitismoaren adibiderik garbiena da, krisi honetan are gehiago hondoratuko gaituena**.

Urte hauetan guzietan hainbat antolakunde aritu dira eta ari dira AHTaren kontra: AHTaren aurkako Asanblada, CADE, AHT Gelditu! Elkarlana, Mugitu! Mugimendua, talde informalak, tokian tokiko taldeak auzoetan, herrietan, eskualdeetan,... eta hauekin guziekin borrokak uztartuz talde ekologistak, sindikatuak, gazteen antolakundeak, udalak, herri mugimenduak, aurkaritzari ikuspegi tekniko-zientifikoa eman dioten ikerlariak.... Zuek ere honetan aritu zarete eta ari zarete oraindik ere ziurrenik.

Horregatik zuengana jotzen dugu 30. urteurren honetan, ekimen honekiko zuen atxikimendua azal dezazuen, AHTaren aurkako borroka berretsiz eta urteurreneko ekimenekin bat eginez:

- 30 urte ondoren AHTaren aurka, lurraren defentsan eta eredu soziala eraldatzearen aldeko borrokak aurrera jarraitu behar duela aldarrikatuz.
- Jendaurrean hau bezalako azpiegitura suntsitzaileen aurkako konpromezua aldarrikatuz eta ekimenetan parte hartzera deituz iritzi artikuluekin edo hobekien deritzozuen moduan eginez. **Bereziki, bi deialdia azpimarratuko ditugu: apirilak 15**, goizeko 11:00etan Biriaturko pilotalekuan AHTaren aurkako Ipar zein Hegoko oposizioak deituriko agerraldi masiboa; eta **maiatzaren 6an**, Euskal Herriko hainbat tokitan ospatuko den urteurrena.
- Barne mailan jarrera hau zuen antolakundeko kideei helaraziz eta ekimenetan parte hartzera gonbidatuz.
- Zuen testuinguruan ekimenen bat antolatuz: 30. garren urteurrenaren karietara atondu dugun erakusketa jarritz, hitzaldiren bat antolatuz eta abar.

Eskerrik asko zuen babesagatik

AHTrik Ez Euskal Herria

